

LA HERRERA

INFORMAZIO, HAUSNARKETA ETA DEFINIZIO TOPAGUNEA



## LA HERRERA 2. FASEA

(HIRUGARREN UNEA)

(TERCER MOMENTO)

HERRITARREN PROPOSAMENAREN

ANALISIA

ANÁLISIS DE LA

PROPUESTA CIUDADANA

# LA HERRERA

INFORMAZIO, HAUSNARKETA ETA DEFINIZIO TOPAGUNEA



## **1. Sarrera - Introducción**

Duela urtebete hasi zen La Herrerako parte-hartze prozesuaren oinarritzko dokumentuan esaten genuen moduan, Udala da Pasaiaiko herritarrek ordezkatzeko dituen erakundea; hori dela eta, berari dagokio etorkizunari lotutako erabaki estrategikoak hartzea eta baita ere Pasaian beharrezkoak diren eraldaketa-prozesuak zuzentzea. Alkatetzak honek badaki Udalaren ardura dela Pasaiaiko herritarrek etorkizuneko proiektu eta estrategiei buruz informazioa jaso, gaia aztertu, eztabaidatu, proposamenak egin eta erabakiak hartzeko formulak martxan jartzea.

Gure herria eraikitzeko erabaki-gunea Pasaian dago; hori dela eta, Pasaian bizi garen herritar guztien artean landu behar ditugu etorkizuneko proiektuak arrazoi garbi batengatik: zuzenean dagozkigun gaiei buruz erabakitzeko gaitasuna dugulako, erabakitzeko eskubidea dugulako. Eta hau da gure herriaren etorkizuna herritarrekin elkarlanean arituz eraikitzeko dugun konpromiso irmoenaren oinarria.

Pasaiaiko Udalak, Alkatezaren gidaritzapean, legealdi hasieran hartu zuen konpromisoarekin sendo jarraitzen du: pasaitarren parte hartzea sustatu eta bideratzekoa; bazterketarik gabe, guztientzat eta guztiekin. Horregatik sortu genuen Demokrazia Parte-hartzailearen Saila, helburu garbia duena: adostasunetik, interes kolektiboen eta komunitarioen defentsan, gure herriko etorkizuna eraikitzen goaz.

Azken buruan, arriskudun inbertsioa baina gure etorkizunaren eraikuntzan sekulako garrantzia eta munta duena.

Tal y como remarcábamos en el documento base del proceso de participación de La Herrera iniciado hace un año, el Ayuntamiento es la entidad que representa de cerca a la ciudadanía de Pasaia a nivel institucional. Por ello le corresponde adoptar las decisiones estratégicas acerca de nuestro futuro y liderar los procesos de cambio que necesitamos. Esta Alcaldía es consciente de que el Ayuntamiento tiene que habilitar fórmulas que permitan a la ciudadanía contar con toda la información necesaria para analizar, debatir, proponer y decidir acerca de dichas estrategias y de los proyectos que se definan para nuestro pueblo.

El centro de decisión para la construcción del futuro de nuestro pueblo está en Pasaia y lo debemos hacer entre todos y todas las pasaitarras por una sencilla razón: porque tenemos capacidad para decidir acerca de los asuntos que nos afectan directamente, porque tenemos derecho a decidir. Y esta es la base del compromiso firme que tenemos para construir ese futuro de manera conjunta con los y las vecinas.

Este Ayuntamiento sigue firme en el compromiso inicial de la legislatura: llevar a cabo la estrategia de construcción de la participación ciudadana; sin exclusiones, para todos y todas y entre todos y todas. Para ello creamos el Área de Democracia Participativa, para la que definimos un objetivo muy claro: construir el futuro de nuestro pueblo desde el consenso, en la defensa de los intereses colectivos y comunitarios.

En definitiva, una inversión arriesgada pero de vital importancia y trascendencia para la construcción de nuestro futuro.

## LA HERRERA

INFORMAZIO, HAUSNARKETA ETA DEFINIZIO TOPAGUNEA



### **2. Bigarren fasearen bilakaera – Desarrollo de la segunda fase**

Hasierako dokumentuan esaten genuen La Herrera aukerako espazio bezala azaltzen zaigula Pasaia lurraldeak, eta bereziki Trintxerpek eta bere inguruak jendarte eta hirigintza aldetik dituen desorekak gainditzeko.

Egun indarrean dagoen Pasaia Hirigintza Plangintzaren dokumentuan, gure lurraldeaz hitz egiten denean, aipatzen da eremuaren antolaketak fisikoki eta soziologikoki dituen gabeziei eta errealitateari egin behar diola aurre; hots, lurralde horretarako antolatzen denak kontuan hartu behar du joan den mendean garapen itzela gertatu zela hor; lurralde osoan etxeak eraiki zirela: etxe dentsitatea izugarria eta aisialdirako espazio librerik ez, eta zerbitzu egokiak eskaintzeko ekipamenduak urri; desoreka horiek guztiak hartu behar dituela aintzat.

Horregatik, lurralde hori gerora zer izan behar duen definitzen joateko aukerak zabaltzen zaizkigun honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da etorkizunari buruzko erabakiak hemen bizi eta lan egiten dugunon artean hartzea; azken finean, Pasaia izan behar duenaren inguruko erabakia, hemen, Pasaian, hartua izan dadila.

Prozesu hori arrakastatsua izan zedin, dugunari buruzko hausnarketatik abiatu ginen, bizi garen lurraldeari eta bertan bizi garen pertsoneri buruzkoa.

Jakitun ginen konpromiso handiko erabakia zela, axola handikoa gure herriaren etorkizunerako, ezin baitugu ahaztu lurralde eremu hau Pasaia biziberritze urbanistiko eta ekonomikoaren erdigunea izango dela. Beraz, denok aztertu eta eztabaidatu beharreko erabaki baten aurrean gaude.

Decíamos en el documento inicial que La Herrera se configura como el espacio de oportunidad más importante para superar los desequilibrios socio-urbanísticos de gran parte del territorio pasaitarra, fundamentalmente de Trintxerpe y su entorno.

Ya en el documento de las Normas de Planeamiento de nuestro pueblo se analizaba y perfilaba que la ordenación de este espacio debía, en primer lugar, responder a la realidad física y sociológica del entorno en el que se ubica. Es decir, que lo que se ordene en ese territorio, debe tener en cuenta los desequilibrios que produjo en nuestro pueblo el desarrollo brutal del siglo pasado, en el que se construyó prácticamente todo el territorio, con una densidad muy elevada, sin espacios libres en los que poder desahogarnos y sin equipamientos comunitarios para poder ofrecer unos servicios adecuados.

Ahora que se abren oportunidades para la definición de lo que va a tener que ser ese territorio, es más importante que nunca, que las decisiones acerca de su futuro las adoptemos entre todas las personas que vivimos y trabajamos aquí; que, en definitiva, la decisión de lo que vaya a ser Pasaia en el futuro se tome, aquí, en Pasaia.

Para que ese proceso fuera eficaz, partimos de la reflexión de lo que tenemos, de lo que somos, del territorio en el que vivimos y de las personas que en él habitamos.

Éramos conscientes de que es una decisión fundamental en el desarrollo del futuro de nuestro pueblo, ya que no debemos olvidar que esta pieza urbana está llamada a convertirse en el centro urbano de la regeneración socio-urbanística y económica de Pasaia. Una decisión, por tanto, que debe ser analizada y debatida entre todos y todas.

Por ello este Ayuntamiento organizó un "Un

## LA HERRERA

INFORMAZIO, HAUSNARKETA ETA DEFINIZIO TOPAGUNEA



Horregatik, Udalak **"La Herrera: informazio, hausnarketa eta definizio topagunea"** antolatu zuen. Prozesuaren lehen fasea 2.009ko ekainean eta uztailean burutu zen.

Lehen fase horren xedea zen pasaitarrek **espazio horren etorkizuneko antolamenduari buruz hausnartzea eta irizpideak definitzea.**

Hainbat saioen ondoren, fase horren amaieran, sintesi dokumentu batean laburbildu zen herritarren **posizionamendua**; herritarren asmoa adierazten zuten **irizpide nagusi bi** zituen:

- **"La Herreraren etorkizunari buruzko erabakia pasaitarrok hartu behar dugu eta erabaki gunea Pasaian dago."**
- **"Beste ezer baino lehen, La Herrera biziberritzeak aisialdirako espazioa eman behar dio bere inguruari, berdegunez inguratuta, eta ekipamendu batzuk sortu aisialdia, kultura eta ekonomia indartzeko. Gainera, Pasaiko barrutien arteko komunikazioa erraztu behar du, baita pasaitarren eta inguruko lekuen arteko mugikortasuna ere."**

Irizpide orokor horretaz gain, beste batzuk jaso ziren proposamen zehatzetan: espazio libreak, kultura-ekipamenduak, turismoarekin zerikusia daukaten jarduera ekonomikoak.

Fasearen amaieran, parte-hartzaileek etorkizunean eman beharreko pausoez ere hitz egin zuten, baita Herritarren Batzordea osatu ere. Sorrera hori eta bere eduki zein helburuak aurkeztu zizkieten talde politikoei joan den Uztailean 29an egin genuen bileran.

Prozesu horren jarraipen gisa, bigarren fase

**encuentro de información, reflexión y definición de La Herrera"**, cuya primera fase se celebró entre los meses de Junio y Julio de 2009.

El objetivo de esa primera fase era que los y las pasaitarras **reflexionaran y definieran los criterios en cuanto al futuro de la ordenación de ese espacio.**

Tras varias sesiones, y como conclusión de las mismas, se elaboró un documento de síntesis con el **posicionamiento** ciudadano, que contenía dos **criterios principales** que reflejaban la posición de la ciudadanía:

- **"La decisión del futuro de La Herrera debe recaer en los y las pasaitarras y el ámbito de decisión es Pasaia."**
- **"La regeneración de La Herrera debe dotar a su entorno, ante todo, de un gran espacio para el esparcimiento rodeado de zonas verdes y facilitar una serie de equipamientos encaminados a potenciar el ocio, la cultura y la economía. Debe, además, favorecer la comunicación entre los distritos de Pasaia y la movilidad de los y las pasaitarras y zonas circundantes."**

Además de este criterio general, se recogieron otros en propuestas concretas: espacios libres, equipamientos culturales, actividades económicas relacionadas con el turismo, etc.

Al finalizar esta fase, las participantes decidieron los pasos a dar en el futuro y crearon una Comisión Ciudadana de Trabajo. Su constitución, así como su cometido y objetivos fueron presentadas en la reunión celebrada el pasado 29 de Julio a los grupos políticos.

Como continuación de ese proceso se diseñó una segunda fase cuyos objetivos eran:

## LA HERRERA

### INFORMAZIO, HAUSNARKETA ETA DEFINIZIO TOPAGUNEA



bat diseinatu zen ondoko helburu hauekin:

- La Herrerarako antolaketa proposamen bat eraikitzea posizionamendu kolektibo eta komunitariotik.
- Gizarte posizionamendu zabalagoa lortzea. Proposamenarekiko gizarte adostasuna zabaltzea, Pasaiaiko solaskideekin eztabaida aberasgarria aurrera eramanda.
- Herritarren eta Udalaren, Udalaren eta Herritarren arteko harremanetan aldaketa sustatzea.

La Herrerako prozesuaren bigarren fase honetako estrategia metodologikoari dagokionez hiru une edo urrats nagusi planteatu ziren. Hiru une horietatik jada bi burutu dira, prozesuaren lehen fasean gidari lanak egin zituen aditu taldeak lagundurik. Bi urrats nagusi horiek hauek izan ditugu:

- **Iritziak partekatzeko hiru lan bilkura:** alderdi politiko eta La Herrera Herrira Batzordeko kideen arteko lan bilkurak. Lan talde honen helburu nagusia izan da guztiak elkartzea, iritziak trukatzeko eta egon diren adostasun-puntu asko identifikatzea. Adostasun horiek izan dira ondoren proposamenaren idazketan eta zehaztapenean erabiliak.

Jardunaldi horietako emaitzak Lan Talde Teknikoaren eskuetan jarri ziren, hark hurrengo uneetarako oinarrizko dokumentua osatu zezan.

- **Lantalde Teknikoaren lana:** La Herrera Herrira batzordeko zenbait ordezkariaren eta Udalak prozesuaren garapenerako jarri dituen teknikarien artean lau lan saio burutu dira. Helburua elkarren artean hitz egin, entzun eta herritarren ordenazio

- Construir una propuesta de ordenación para La Herrera desde el posicionamiento comunitario y colectivo.
- Lograr un posicionamiento comunitario más amplio. Ampliar el acuerdo sobre la propuesta, fomentando un debate enriquecedor acerca de la misma entre las pasaitarras.
- Impulsar el cambio de relación entre Ciudadanía y Ayuntamiento, Ayuntamiento y Ciudadanía.

En cuanto a la estrategia metodológica de esa segunda fase, se plantearon tres momentos o pasos fundamentales. De esos tres momentos se han desarrollado ya los dos primeros, que han sido dinamizados por el mismo grupo de expertos de la primera fase del proceso. Estos dos momentos han sido:

- **Tres sesiones de trabajo para compartir opiniones:** jornadas de trabajo entre miembros de los partidos políticos y las personas que forman la Comisión Ciudadana de Trabajo "La Herrera Herrira". El objetivo fundamental de este grupo de trabajo ha sido juntarse, compartir las opiniones e identificar los muchos puntos de encuentro que posteriormente se han utilizado para la redacción y materialización de la propuesta.

Los resultados de estas jornadas se pusieron en manos del Grupo Técnico para completar el documento base para las siguientes acciones.

- **Trabajo del Grupo Técnico:** se han desarrollado cuatro sesiones de trabajo entre varios representantes de la Comisión La Herrera Herrira y los técnicos que puso a disposición del proceso el Ayuntamiento con el objetivo de dialogar y elaborar la concreción de la propuesta de ordenación de la ciudadanía.

## LA HERRERA

### INFORMAZIO, HAUSNARKETA ETA DEFINIZIO TOPAGUNEA



proposamena zehaztea izan da.

### *3. Hirugarren unea / Tercer momento*

Beraz, bigarren fase honetan planteatutako hiru uneetatik, hirugarrena burutzea geratzen zaigu. Lehen faseko topagunea berreskuratu eta bertara Lan Talde Teknikoak egindako proposamena eramatea, han eztabaidatu, zuzendu, adostasunak landu eta onartu dadin.

Lehen fasean bezala, parte-hartze esparrua edo eremua Pasaia osoa izango da, baita Donostiaren administraziopean dauden pasaitarra ere. Parte-hartzea prozesuaren berri izateko edota ekarpenak egiteko interesa duen orori egongo da irekia.

Topague hau hurrengo larunbatean, Ekainaren 12an izango da, helburu hauekin:

- ❑ Proposamenaren zehaztapen orokorra.
- ❑ Parte-hartzaileek herritarren proposamenaren nondik norakoen eta ardatz nagusien ulermen garbia eta zehatza lortzea.
- ❑ Herritarren proposamenaren inguruan (dokumentua, marrazkia eta eranskinak) herritarren atxikimendua-identifikazioa-posizionamendua bilatzea.
- ❑ Baldintza subjektibo (borondateak eta konpromisoak) eta objektiboak (boluntarioak) sortzea, hurrengo etapan egin beharreko lana kontuan hartuta herritarren antolaketa zabaltzeko asmoz.

#### **Estrategia metodologikoa:**

Proposamena La Herrera Herrira herritar batzordeko ordezkariak aurkeztuko du dinamizatzaileen gidaritzapean.

Queda, por tanto, realizar el tercero de los momentos planteados en esta segunda fase del proceso. Se trata de recuperar el Topagune de la primera fase para elevar al mismo para su debate, corrección, consenso y aprobación, la propuesta elaborada por el Grupo Técnico.

Al igual que en la primera fase, el ámbito de participación en esta segunda fase será el de todo el municipio de Pasaia, incluyendo a los y las pasaitarras bajo administración donostiarra. Esta participación estará abierta a toda persona que tenga interés en conocer y aportar lo que estime conveniente.

Este Topagune se celebrará el próximo **12 de Junio** y sus objetivos serán:

- ❑ Concreción global de la propuesta.
- ❑ Lograr una comprensión clara y precisa por las participantes del enfoque y los elementos centrales de la propuesta ciudadana.
- ❑ Buscar la adhesión-identificación-posicionamiento de la ciudadanía con respecto a la propuesta ciudadana (documento, dibujo y anexos).
- ❑ Crear condiciones subjetivas (voluntades y compromisos) y objetivas (voluntarios/as), iniciando el proceso de ampliación de la organización ciudadana, de cara al trabajo a realizar en la siguiente etapa.

#### **Estrategia metodológica:**

La propuesta será presentada por la representación de la Comisión Ciudadana La Herrera Herrira bajo la supervisión de la dina-

## LA HERRERA

### INFORMAZIO, HAUSNARKETA ETA DEFINIZIO TOPAGUNEA



Aurkezpena egitean proposamenaren gakoak hobeto ulertzeko hainbat euskarri erabiliko dira.

Prozesuaren kokapen orokorra ere egingo da topagunean parte hartzen dutenak egindako bidez kontziente izan daitezten.

Topagunea, aurrekoak bezala, Karmengo Ama eskolan izango da. Goizeko 9,30etan parte-hartzaileen izen ematea hasiko da eta 10etan emango zaio hasiera jardunaldiari. Hiru ordutako iraupena izango du eta saio orokorrak eta lantaldekoak txandakatuko dira.

Udalak jada aurreko topagunean parte hartu zutenei gonbidapen zuzena igorri die, baina helburua talde hori zabaltzea denez, prentsaren bidez, kartelen bidez eta beraren web orriaren bidez gonbidapena herritar orori zabalduko dio.

mización.

Se utilizarán para ello diversos soportes para una identificación más clara de las claves de la propuesta.

También se hará un recordatorio del proceso, para que quienes participen se sitúen y sean conscientes del camino recorrido.

El Topagune se celebrará, al igual que los anteriores, en Karmengo Ama. A las 9,30 se iniciará la acreditación de las asistentes y a las 10 dará comienzo la jornada. Se prevé una duración de tres horas y durante su desarrollo trabajaremos tanto en grupo global como en grupos de trabajo.

El Ayuntamiento ya ha remitido una invitación personal a quienes participaron en las jornadas anteriores y, como el objetivo es ampliar esa participación, va a difundir esta invitación a través de la prensa, carteles y su propia página web municipal.